

Gure asmoa gauzatzeko, Donostialdea ESlak eskaintzen duen zerbitzuaren kalitate-maila egituratu eta bermatzen du, horretarako prozesuen funtzionamendu eraginkor eta efizientean oinarritzen diren kalitate-kudeaketarako sistemak ezarriz, gizarte-ingurunearen behar eta itxaropenekin bat etorrita.

Horretarako, helburu hauek zehazten ditu Plan Estrategikoan:

1. Pertsonen esperientzia hobetzea, asistentzia humanizatuz.
2. Euskal Osasun Sistema hobetzen eta garatzen laguntzea, erreferenteak izanik eta desberdintzearen ekarpena eginez.
3. Profesionalen gogobetetasuna hobetzea.
4. Antolaketa-egitura dinamikoa, iraunkorra eta aurreratua sustatzea.
5. Gipuzkoako gizartearen ongizatea hobetzen laguntzea: Etorkizuna orain.

Horrekin bat etorriz, Zuzendaritzak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Gure bezero/erabiltzaileen eta beste alderdi interesdun batzuen beharrak eta itxaropenak ezagutzea eta asetzea, gure asistentziari buruzko erabakiak hartzekorakoan.
- Aplikatu beharreko arau-eskakizunak betetzen direla ziurtatzea.
- Prozesuen funtzionamenduko arriskuen analisia bultzatzea.
- Gure kudeaketa-sistemaren etengabeko hobekuntza bermatzea, horretarako behar diren baliabideak eskainiz.
- Finkatutako kalitate-helburuak lortzeko langileen inplikazioa eta konpromisoa sustatzeko, haiek sentibilizatu, informatu, motibatu eta prestatzea.
- Kalitate-politika hau alderdi interesdun guztiei zabaldu eta haren ezagutza sustatzea.

Izpta. Agustin Agirre Aranburu
DONOSTIALDEA ESI-KO ZUZENDARI GERENTEA
2023ko martxoa